

Ezkio-Itsaso. "Igartubeiti Baserri Museoak iaz baino 65 bisitari gehiago hartu ditu Aste Santuko opor hauetan"

Udaberriko edo Aste Santuko oporrak amaitu dira dagoeneko eta Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoko bisitarien datuak mahai gainean ditugu, oraingoan pasa den urtean baino bisitari gehiago jaso direlarik bertan.

Horrela, guztira 353 lagun izan ditugu gure herriko altxorra bisitatzen, 2008.urtean baino 65 bisitari gehiago eta datu pozgarria da hau. Bisitari hauek guztietatik 16 Urola Garaikoak izan dira; 83 Euskadi eta Nafarroakoak; 26 Kataluniakoak; 50 Espainiako bestelako lekuetakoak; eta 6 atzerritarrak.

Beharbada datu bitxiena atzerritarrena da, sei hauek bai Uruguaitik bai Cerdeñatik etorri zirelarik.

Bestalde, heldu talde bat ere izan dute Igartubeitikoek, 50 pertsonetakoak. Dena den, gehienak helduak eta banaka etorri dira: 246; eta gazteak berriz banaka, 57 lagun.

M. GALILEA